



GAZTERIA ETA KIROL ZUZENDARITZAK KIROL-ARLOAN 2013AN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETAK

2013ko aurrekontu-memoriaren eskemari jarraituz

1. Euskadi, erreferentzia jarduera fisikoan

Eskolarteko Kirol Jokoen 32. edizioa antolatu da, eta desgaitasunak dituzten kirolariak ere integratu dira, hiru kirol-modalitatetan.

Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, 2013ko Unibertsitate Kirolaren Euskadiko Txapelketak antolatu dira. Halaber, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen jarduerari ekin zaio berriro.

Eskolarteko Kirolaren Batzordeak bi bilera egin ditu, jardunbideak koordinatzeko. (Talde teknikoa).

Diziplina anitzeko lantalde bat eratu da, Osasun Sailarekin batera, eta Eusko Jaurlaritzarako Jarduera Fisikoaren eta Osasunaren Plana diseinatu da, aurreko legegintzaldian egindako lana baliatuta.

Euskal Kirol Eskolak kirol-prestakuntzako jarduerarekin jarraitu du 2013. urtean. Guztira 10 prestakuntza-jarduera egin ditu (602 parte-hartzaile). Kirol-federazioek sustatutako entrenatzaile-ikastaroak baimendu eta gainbegiratu ditu; guztira, 16 ikastaro. Prestakuntzarekin lotutako jarduerari, dokumentuei eta albisteei buruzko informazioa hedatu du, zenbait komunikazio-kanalen bitartez (informazio-buletina, webgunea, sare sozialak). Eta aholku eman die EAEko kirol-arloko erakunde eta eragileei, kirol-prestakuntzarekin zerikusia duten alderdi guztietan.

Ibilbideak proiektua sustatzen jarraitu da, eta ekimen berriak abiatu dira 2013an zehar. Hona hemen aipagarrienak:

Ibilbideak mapa

Ibilbideak proiektuaren barneko kirolekin lotutako mapa digital bat da. Doan behera kargatu daiteke, eta zenbait formatutan eskaintzen da, erabilera jakinetarako.

Transibilbideak BTT lankidetzaproiektua

Mendiko bizikletan egiteko ibilbide bat sortu da, Euskal Herriko naturagune nagusiak lotzen dituena.



Mugitzeko irudiak lankidetzeta-proiektua

Ibilbideak proiektuaren barneko kirolak egiten ari diren ibiltarien irudiak jaso dira, Ibiltari elastikoa jantzita dutela, bideoak eta liburu digitalak egiteko.

Maite ditugu gure bazterrak

Webguneko jarduera dinamizatzaile bat da, helburu duena Euskal Herriko lekuak ezagutaraztea. Horretarako, joko bat proposatzen da: ibiltariek proposatutako lekuak asmatu behar dira, irudiak eta argibideak oinarri hartuta.

Nor da?

Erkidegoko ibiltari batzuei, ekarpen berezia egin dutenei, egindako elkarriketak.

Edukien auditoretza

Etiketatzearen funtzionaltasun berri bat abiapuntu hartuta, ibilbide partekatu guztiak berrikusi nahi dira, kalitate handiko edukia eskaintzen dutenak nabarmenduz eta okerrak direnak zuzentzeko proposatuz.

Asteko ibilbidea

Astero, interes berezia izateagatik nabarmendu daitekeen ibilbide bat argitaratu da.

Eragile parte-hartzaileen artean, 3.855 pertsonaz gain, 277 talde daude Ibilbideak proiektuan erregistratuta; gehienak kirol-arloko eragileak dira, baina badira beste arlo batzuetakoak ere: turismoa, ingurumena, hezkuntza...

2.-Kirolaren elkarte-egitura:

Euskadiko 47 federaziok jaso dituzte diru-laguntzak urteko programetarako. Esan beharra dago 47 eskabide aurkeztu zirela, eta, Balorazio Batzordeak haien kirol-proiektuak aztertu ondoren, den-denek jaso zutela diru-laguntza.



Euskal Kirol Federazioen Batasunari laguntza eman zaio bere funtzioak betetzeko, bai eta federazio-sarea berrantolatzeke ere, haren esku-hartzea funtsezkoa baita horretarako.

Horrez gain, Euskadiko lehiaketa-esparrua ere aztertu da, haren egiturak arrazionalizatzeko eta kirol-eragileen (kirol-taldeak eta kirolariak) beharrei egokitzeko.

3. Goi-mailako kirola eta kanpo-proiektzioa:

Eskabideak aztertuta, goi-mailako kiroleko 27 kirolariri, 4 teknikariri eta 6 epaileri eman zaie kalifikazioa eta aitortza. Bitan argitaratu dira zerrendak.

Diru-laguntza bat eman zaio Euskadi Kirola Fundazioari, goi-mailako kirola sustatze aldera. Fundazio horren bidez, diru-laguntzak eta beste laguntza batzuk bideratu dira goi-mailako kirolarientzat, aukera izan dezaten beren jarduerarako denbora gehiago hartzeko, eta, hartara, kirol-errendimendu handiagoa lortzeko, goi-mailako kirolaren sustapenari buruzko proiektuan ezarritako errendimendu-irizpideen arabera. Ildo horretatik, 40 kirolariri eman zaie laguntza 2013an, besteak beste: 19 emakumeri eta 21 gizoni. Horrez gain, laguntza izan dute gizonezko 10 teknikaririk, emakumezko teknikari batek eta natura-ingurunearen proiektu batek.

Bestalde, Faturako Kirolarien Egoitzan 9.507 gau eman dituzte kirolariek: 29 herrialdeetakoak eta 21 kirol-modalitateetakoak ziren.

Faturako Hobekuntza Teknikoko Zentroaren kontzeptua eta funtzionamendua berriro definitu dira, goi-mailako kirolaren garapena hobetzeko. Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako eta kirol-federazioetako teknikarien arteko koordinazioa eta talde-lana bideratzeko mekanismoak sendotu dira.

Nazioarteko kategoria absolutuko kirol-lehiaketa ofizialetan euskal kirolarien parte-hartzea lagundu da. Guztira, mota horretako 18 kirol-ekitalditako parte-hartzea lagundu da diruz.

Gainera, diru-laguntza eman da nazioarteko goi-mailako kiroleko 25 lehiaketa antolatzeke.



Kanpo-proiektzioa izan dezaketen zenbait kirol-ekitaldiren antolaketan ere lagundu da.

Foru-aldundiekin lankidetzan jarraitu da, kirol-arloko talentuen eta etorkizun oparoa izan dezaketen kirolarien jarraipena egiteko, eta laguntzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu da horretarako.

Europar Batasuneko Replay proiektuaren (*Reusable low-cost platform for digitizing and preserving traditional participative sports*: Kirol autoktonoak digitalizatzeko eta haiei iraunarazteko kostu txikiko plataforma berrerabilgarria) garapenean ere lagundu da. Proiektu horren helburu nagusia da plataforma teknologiko bat garatzea, Europako joko eta kirol tradizionaleri buruzko edukiak euskarri digitalean erabiltzeko eta interpretatzeko.

Plataforma horrek aukera emango du zenbait entrenamendu mota baliatzeko, eta kirol-arloko irakaskuntza eta ezagutzak hedatzeko. Hori lagungarria izango da parte-hartzea sustatzeko, eta bai Europan bai nazioartean kirol tradizionalari iraunarazteko. Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal pilotaren kirol-modalitatea aukeratu da, eta hiru diziplina hauek: eskuzko pilota, zesta-punta eta pala.

4. Berdintasuna. Benetakoa eta eraginkorra izan dadila euskal kirolean.

Kirol-arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programa espezifikoa lantzeko prozesuan, aurretiko diagnostiko bat egin da, gero dokumentua egiteko.

Hala, zenbait forotan parte hartu da: elkarrizketak irratian eta prentsa idatzian (Argia), parte-hartzea konferentzietan (Aretxabaleta), etab.

Euskal prentsa jeneralistan eta kirol-egunkarietan emakumeen kirola nola agertzen eta tratatzen den aztertu da.

Halaber, goi-mailako emakume kirolari bat amatasunaren ondoren kirol horretara itzultzeko prozesua ere aztertu da.

Bestalde, aurrera egin da Euskadi Kirola Fundazioarekin eta Euskaltelekin sinatutako hitzarmenaren garapenean, emakume kirolariak komunikabideetan gehiago ager daitezen lortzeko.

5. Araudia

Hauek izapidetu dira, argitaratu bitartean:



391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskolarteko kirol-lehiaketetako diziiplina-erregimenari buruzkoa (EHAA, 186 zk, 2013ko irailaren 30ekoa).

Euskadin kirol-lanbideetan aritzeari buruzko Legearen zirriborroa egin da, Europar Batasunean arlo horretan gertatu diren aldaketei egokitzuz.

Ekainaren 21eko 12/2012 Legea (kirol-arloko dopinaren aurkakoa) garatzen duten dekretuen zirriborroak egin dira. Dena den, oraindik ez dira izapidetu, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren araudian aldaketak egin baitira, eta araudi horri egokitu behar baitzaizkie dekretuak.

6. Zero Tolerantzia dopinarekin

Kirol-arloan dopinaren aurka borrokatzeko zereginarekin aurrera jarraitu da. Euskal kirol-federazioekin lankidetzan, dopinaren aurkako kontrolak egin dira. 187 lagin jaso dira, eta 4tan izan da emaitza kaltegarria. Kasu horietan, dagozkion zigor-espedienteak abiatu dira.

Horrez gain, furgoneta bat erosi da, dopinaren aurkako kontrolak egiteko, horretarako azpiegitura finkorik ez dagoen lekuetan.

7.- BESTELAKOAK

KIROL-INSTALAZIOEN ERROLDA

2012ko abenduan bukatutako informazio-bilketaren kanpoko kalitate-kontrol bat egin da.

Informazio hori Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratzeko proposamena egin zaio (2013ko uztaila) Kirol Kontseilu Gorenari. Erantzunaren zain.

KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUA

Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak izendatu eta osaera berria argitaratu da. *"AGINDUA, 2013ko urriaren 29koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak izendatu eta Kontseiluaren osaera argitaratzeko dena"*. (EHAA, 219 zk, 2013ko azaroaren 18koa).

KIROL JUSTIZIAKO BATZORDEA



EAEko kirol-jarduerarekin lotutako hainbat espediente eta errekurtsio ebatzi dira.

KIROLEKO INDARKERIAREN AURKAKO BATZORDEA

Osaera berria argitaratu da: *AGINDUA, 2013ko maiatzaren 21koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Kiroleko Indarkeriaren aurkako Euskal Batzordeko kideak izendatu eta Batzordearen osaera argitara ematen duena.*(EHA,108 zk, 2013ko ekainaren 6koa).

Kirolean indarkeriazko ekintzak gertatuz gero esku hartzeko jardun-protokolo bat egin eta aztertu da.

Bilerak egin dira Segurtasun Sailarekin.

Galdetegi bat prestatu da, indarkeriari buruzko informazioa biltzeko, Delphi metodoaren bidez, komunikabideen jardunbide egokien dekalogo bat egiteko.

FEDERAZIOEN LOKALAK

Errotaburuko kontratua negoziatu da eta 2014ra arte luzatu da.

FEDERAZIOEN ESKU-HARTZEAK/GAITZEAK

Squasheko Euskal Federazioaren funtzioak EKFBri esleitu zaizkio.

KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROA

Enpresa laguntzaile bat kontratatu da.

2013/05/27tik 2013. urtearen amaierara bitartean, 1.566 espediente izapidetu dira guztira. Haietako 600etan aldeko ebazpena eman da; gainerakoei zuzentzeko eskakizuna egin zaie.

Hala ere, aldaketa-eskaerak eta inskripzio-eskaera berriak etengabeak direnez, eta kontsultak egin eta liburuak eraman behar direnez, ezinezkoa da, inondik ere, erregistroko lana eguneratuta izatea. Egoera hori egiturazkoa dela azpimarratu nahi da.

Ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea, eta lehentasunak etengabe aldatzea.

KIROL EN WEBGUNEAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes

Hobetu egin da, eta emakumeei eta kirolari buruzko atal bat txertatu da.